

TALDE-LANA KOEBALUATZEKO ERRUBRIKA

Ikaslearen edo ikasleen izena: _____

ALDERDIAK	4 BIKAIN	3 ONGI	2 HOBETU DAITEKE	1 GUTXI
Arduratsua da esleitutako atzarekin	Bai. Egin beharreko guztia egin du.	Egin beharreko lanaren %70-80 egin du.	Esleitutako lanaren erdia baino apur bat gehiago amaitu du.	Ez du ia ezer egin, edo gehienez ere, atazaren erdia baino zerbait gutxiago egin du.
Taldekideen iritziak onartu ditu	Besteen oharrak, iradokizunak eta iritziak entzun eta onartu ditu, eta horiek lana hobetzeko erabili ditu.	Besteen oharrak, iradokizunak eta iritziak entzun eta onartu ditu, baina ez ditu erabili lana hobetzeko.	Besteen oharrak eta iradokizunak entzun ditu. Dena dela, beti ez ditu aintzat hartu edo beti ez ditu ondo onartu.	Ez du taldekideek esandakoa entzun.
Errespetuz jokatu du, eta talde-lana erraztu du.	Kide guztiak errespetatu ditu. Taldea eta kide guztiak animatu ditu, hobetzeko. Lana eta emaitzak hobetzeko proposamenak egin ditu.	Kide guztiak errespetatu ditu. Taldea eta kide guztiak animatu ditu, hobetzeko.	Kide guztiak errespetatu ditu. Ez du taldea animatu edo kideetako batzuk baino ez ditu animatu, lana hobetzeko.	Ez du taldekideekin errespetuz jokatu.

